BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

4454

190/2012 DEKRETUA, urriaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren 9311 programan (Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak) eta 9211 Programan (Espainiar Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak) diru-sarrerak lortu direla-eta, 4222 Programan (Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa) 20.904 euroko kredituak gaitzen dituena.

Hezkuntza, Kultura eta Kirolak Ministeriotik diru-sarrera osagarriak lortu dira (17.500 euro), hain justu ere Lanbide Heziketako eta Orientazioko Kalitatea eta Berrikuntzari buruzko Sariei (EAEko ikastetxe publikoei esleitutakoei) dagozkienak.

Halaber, Europar Batasunetik 3.404 euroko diru-sarrera osagarriak jaso dira, hain justu ere CLEAR Proyect Sorkuntza eta Berrikuntza: Ikaskuntza Katerako Marko Pedagogikoa izeneko europar proiektuari dagozkion jarduerak garatzeko.

Goian aipatutako kredituak, 20.904 eurokoak, gaitzea eskatzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Horregatik, dekretu honen bidez, kredituok gaitzen dira Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartu zuen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuko 82. eta 83. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko urriaren 2an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2012ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	€
4222	238.99	17.500,00

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian, kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	€
9211	431.00	17.500,00

Euskal Autonomia Erkidegoan, Kalitatea eta Berrikuntza Orientazioan eta Lanbide Heziketan izeneko sariak esleitu zaizkien ikastetxe publikoentzako izango dira funtsak.

2. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2012ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	€
4222	238.99	3.404,00

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian, kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	€
9311	441.49	3.404,00

CLEAR Proyect Sorkuntza eta Berrikuntza: Ikaskuntza Katerako Marko Pedagogikoa izeneko europar proiektuari dagozkion jarduerak finantzatzeko erabili beharko dira funtsak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 2an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.